# Bases de la formación en Psicomotricidad Relacional en Magalean

# ¿Qué es la psicomotricidad relacional?

La Psicomotricidad Relacional surge de los trabajos de investigación de André Lapierre (1923-2008) tras su etapa en colaboración teórica y práctica con Bernard Aucouturier, durante la cual ambos desarrollaron un amplio panorama de estrategias para la educación y la reeducación psicomotriz, recogidas en títulos como la trilogía "Educación vivenciada. Los contrastes. Asociaciones de contrastes, estructuras y ritmos. Los matices". En "Simbología del movimiento", fijaron su atención en los aspectos expresivos y proyectivos del juego espontáneo que aparecían en cursos de formación con adultos e intervenciones en prevención y terapia con niños/as, a finales de la década de 1970. A partir de entonces, André comenzó a trabajar con su hija Anne Lapierre, con quien publicaría "El adulto frente al niño de 0 a 3 años". Ambos iban a impartir numerosos cursos para docentes en distintos lugares de España, entre ellos la Escola d'Expressió del Instituto de Educación del Ayuntamiento de Barcelona. A finales de la década de 1980, encomendaron la extensión de su filosofía del desarrollo psicomotriz en el ámbito educativo a la catalana Nuria Franch.

Formadas/os en esta corriente, continuamos nuestra propia andadura con gran agradecimiento al legado que tenemos en nuestras manos y cuidando de él con mucho mimo.
La Psicomotricidad Relacional proporciona herramientas para interpretar y comprender la dimensión simbólica y afectiva del juego de los niños/as y así poder facilitar y acompañar a estructuración y la expresión de su identidad y, en su caso, su recuperación e integración.

La Psicomotricidad Relacional entiende que son las relaciones y los vínculos con los adultos significativos y queridos durante los primeros años de vida del niño/a los que configuran la identidad humana, sus aspectos psico-afectivos, emocionales y cognitivos en un cuerpo físico que construye la memoria de las vivencias en interacción comunicativa. Una relación y unos vínculos seguros con los adultos que sostienen al niño/a, hacen posible y preservan la construcción de la confianza necesaria para abrirse al mundo, descubrirlo e investigarlo con interés, curiosidad y libertad. Un proceso así durante los primeros años de vida dará lugar a la construcción de una personalidad equilibrada y a una socialización tranquila y satisfactoria. Por contra, las carencias afectivas y comunicativas generarán inseguridad y bloqueos.





Los procesos de construcción de las identidades se materializan a través del lenguaje TÓNICO-CORPORAL que precede al lenguaje verbal, en la relación adulto-bebé, donde toda la comunicación se establece en el cuerpo. El cuerpo es el lugar único donde se vive toda la sensibilidad: la afectividad, la emoción, la relación con uno mismo/a y con el otro; lugar de placer, de deseo, de frustración y de angustia, de conocimiento y aprendizaje. En definitiva, lugar de interiorización y recuerdo de todas las emociones vividas por la criatura en su relación con otros/as, particularmente con las figuras parentales y sus sustitutos/s adultos/a.

La Psicomotricidad Relacional es una herramienta de trabajo que nos posibilita establecer comunicación desde el código natural y propio de los niños/as: la actividad y el juego espontáneo. En este lenguaje, los/as niños/as transmiten los deseos, necesidades y conflictos que están viviendo. Es decir, todo lo que acontece en el cuerpo.

El/la psicomotricista relacional abordará esta comunicación atendiendo a las necesidades concretas de cada niño/a y su momento evolutivo particular, desde el respeto, la implicación y la disponibilidad comunicativa y corporal, siendo la lectura de la simbolización la herramienta que utiliza para interpretar el juego: expresión personal, proyección imaginaria y mimesis que modula el ajuste (acomodación, asimilación) entre la realidad exterior percibida y el mundo interior del niño/a.

Su comunicación corporal, mediadores de la relación como el tono, la postura, la voz, la mirada, el gesto, la sonrisa, el movimiento, el ritmo, el lenguaje.... con los que la escucha de uno/a mismo/a y del otro/a adquieren una importancia primordial en el acto educativo y la comunicación adulto/a-niño/a.

# ¿Cuál es la aportación de la Psicomotricidad Relacional al ámbito educativo y a la infancia en general?

La etimología del término “educación” significa “sacar a la luz”: desarrollar primeramente en la relación madre-hijo/a, construir y manifestar lo que uno/a es, piensa y siente en la familia, en las relaciones sociales, familia extensa, amigos/as, vecinos/as, y en la actualidad, con enorme importancia, la escuela, la escolarización cada vez más temprana y generalizada de la infancia.

Es desde esta visión y en este contexto la Psicomotricidad Relacional es una herramienta muy valiosa y útil para acompañar el desarrollo madurativo de las criaturas, creando ambientes seguros donde los niños/as puedan conocerse y expresar, “sacar a la luz” todo su mundo interno. Un mundo lleno de emoción que necesita ser aceptado, reconocido, escuchado, captado y respetado por el entorno social donde vive la criatura.

La práctica de la Psicomotricidad Relacional nos ofrece la oportunidad de abordar el mundo emocional, esa realidad interna que es cada criatura, pudiendo establecer una comunicación personal adulto/a-niño/a desde la cual dinamizar las interacciones en grupo, canalizar y drenar conflictos, y nutrir necesidades psicoafectivas y cognitivas.



# La importancia de la prevención

La Salud, tal y como la definió la Organización Mundial de la Salud en 1946, no es solamente ausencia de la enfermedad sino un estado de completo bienestar físico, psicológico y social. Las ciencias psicológica, educativa y médica están hoy de acuerdo en que los primeros seis años de vida de las personas son esencialmente importantes para toda la existencia en términos de salud o patología: es en la primera infancia donde se construyen los cimientos de la personalidad humana.

Si en cualquier etapa de la vida acción preventiva resulta primordial, es indudable que en la etapa de 0 a 6 años adquiere una importancia absolutamente significativa. Es en este tiempo cuando se genera y configura la base de la identidad y de la comunicación consigo mismo/a y con los otros: para las criaturas, el mundo se reduce al vínculo afectivo que le proporciona seguridad y aliento para su propio desarrollo, en un contexto de relación familiar y quienes colaboran con ellas: familia extensa, escuela infantil etc.

Por ello consideramos necesario tener consciencia de lo delicado e importante que es la prevención en la primera infancia, y su gran influencia en el devenir psicológico de la persona, y que no da lo mismo quién y cómo intervenga en este proceso de construcción del desarrollo humano.



Siguiendo el conocido lema “Más vale prevenir que curar”, nos parece imprescindible que los profesionales que se dedican a la infancia desde cualquier ámbito (educación, sanidad, asistencia social), conozcan en profundidad las auténticas necesidades del desarrollo humano y en consecuencia estén capacitados/as para construir la relación que requiere la adecuada comunicación con el niño/a: buscando un buen apoyo en los pilares en los que se sustenta la seguridad del infante, consolidando y reforzando el primer vínculo afectivo, reconociendo y apoyando la función insustituible de las figuras parentales. Pudiendo construir la relación educativa, sanitaria o asistencial desde un sistema que acoge e integra el sistema familiar en el que está inmerso el infante. Es aquí, en este punto, donde encontramos la gran utilidad de la Psicomotricidad Relacional; es nuestro propósito aportarla a la formación de los profesionales que abordan la infancia.

# Módulos formativos y sus respectivos contenidos teóricos, prácticos y vivenciales

Consta de 15 módulos formativos en los cuales se practican y se vivencian a lo largo del proceso formativo los siguientes contenidos teóricos, prácticos y vivenciales:

**Concepto e historia de la Psicomotricidad**

- Qué es la Psicomotricidad Relacional
- Historia de la Psicomotricidad y Actualidad
- Ámbitos de intervención de la Psicomotricidad Relacional

**Fundamentos teóricos en los que se basa la Psicomotricidad Relacional**

- Construcción de la identidad
- Diálogo corporal: tono y red que lo entreteje
- La contención
- La agresividad: origen y función de la agresividad en el desarrollo humano
- Posiciones relacionales

**El juego**

- Movimiento- Dirección- Significado.
- Simbología
- El significado del juego y su función en el desarrollo evolutivo
- Significante-Significado
- Lenguaje analógico-digital
- Lectura de contenido del juego

**La estructura de las sesiones de Psicomotricidad Relacional**

- El espacio
- La sala
- El material
- La observación
- La simbología- Objetos- Espacio- Relación-Investir

**El rol del/a psicomotricista relacional**

- Disponibilidad corporal
- La espera
- Escucha
- El cuerpo del/a psicomotricista relacional
- Mediadores de la comunicación:Voz- Cuerpo- Mirada-Postura-Tono
- Mirada periférica
- La flexibilidad y la espontaneidad en el juego
- Fortalezas y situaciones de duda en la sala

**Desarrollo socioafectivo 0-6**

- El apego. Apertura de la relación dual a las primeras relaciones sociales
- El proceso de adaptación en la escuela, proceso de vinculación
- El desarrollo del “yo”
- Fase de afirmación y agresividad
- Como se reflejan las diferentes fases en la sesión de Psicomotricidad Relacional

**El trabajo preventivo de la psicomotricidad**

- Que es la prevención
- Indicadores para observar
- Actitudes relacionales
- Principales manifestaciones psicosomáticas
- Estrategias que integren a la familia

**Masaje infantil**

- La vivencia del cuerpo, diferentes etapas
- La piel, tacto y contacto
- Masaje infantil

**Desarrollo cognitivo**

- Aportaciones de diferentes teorías
- La relación como base del desarrollo cognitivo
- Dificultades de aprendizaje

**Desarrollo evolutivo de las emociones**

- Conocimiento de la identidad emocional vivenciada
- Desarrollo emocional: Sorpresa-Miedo-Ira-Frustración-Culpa-Vergüenza-Placer- Alegría- Apertura-Descubrimiento
- ¿Cómo se reflejan todas estas emociones en la sala de Psicomotricidad Relacional?
- La empatía
- Los límites y la resolución de conflictos

**Aportaciones de la psicología sistémica**

- Ecología de los sistemas humanos
- Abordaje de la familia
- Trabajo interdisciplinar

**Neuropsicología**

- Desarrollo del sistema nervioso
- Filogénesis y ontogénesis de la motricidad

**Psicodinámica**

- Proyecciones infantiles
- Transferencia-contratransferencia

**Puntos centrales del psicoanálisis**

- La teoría de la libido. Función de las fases sexuales infantiles
- La teoría de la frustración y sus consecuencias en la educación
- Las instancias psíquicas: P. del deber, P. de realidad y P. del placer
- Los mecanismos defensivos psíquicos
- La teoría de la autorregulación y su función para el desarrollo de la salud

# Evaluación de la formación

La evaluación es continua y de un seguimiento personalizado de cada alumno/a. Para llegar a las competencias planteadas se pedirán los siguientes trabajos o reflexiones personales:

**Evaluación teórica práctica y vivencial**

- Realización de 3 trabajos individuales del análisis de las sesiones grabadas en video.
- Realización de 1 supervisión "in situ" de la práctica

personal que el/a alumno/a hace con su grupo de niños/as.

- Visionado de videos y lectura de contenidos en grupo.
- Rúbrica de autovaloración: al finalizar el año escolar.
- Al finalizar cada año escolar: el equipo formador permanente hará una entrevista de evaluación personal con cada alumno/a (dos entrevistas).
- Al final de la formación: presentación en público del trabajo monográfico de un tema elegido por el alumnado/a.
- Se valorará la asistencia y la participación.

**Autoevaluación**

- Diario de aprendizaje
- Diario de sesiones

Al final de la formación el/a alumno/a realizarán y expondrán en público un trabajo monográfico de la formación.
El equipo formador hará al final de cada año y a mediados del segundo año de formación una entrevista individualizada para conocer y valorar el proceso formativo y planificar el recorrido a realizar.
Al final de la formación se acordará fecha para la exposición del trabajo monográfico en grupo que el/a alumno/a realizará para exponer en público, una vez finalizada la formación.

# Información general sobre el curso formativo

**Certificación**

Superado el curso se obtendrá un certificado de 850 horas de Formación, Homologado como curso de actualización de 250 horas por Resolución de la Viceconsejera de Educación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Para mas información:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/personal-docente-homologacion-act-formacion/r43-2458/es/

**Calendario y horario**

Dos años de formación: de septiembre de 2024 a junio de 2026.
Un encuentro mensual: viernes de 18 a 21 h. Sábado de 10 a 19h con descanso para comer.

**Coste de la formación**

La formación tiene un coste total de 3.900 euros.

- A plazos: 900 euros de matricula al inscribirse al curso y 150 euros durante diez mensualidades.

# Profundización y Análisis corporal de la Relación

Una vez acabada la formación de dos años, Magalean ofrece la posibilidad de dar continuidad y profundizar en los aspectos vivenciales que se ponen en juego en la relación profesional como Psicomotricista.
Sobre todo, es interesante para aquellos Psicomotricistas que desarrollan su labor en grupos complejos, atienden casos individuales con problemática variada, en la Atención Temprana...etc.

Con el proceso del trabajo de Profundización aumenta la capacitación y competencia del Psicomotricista, mejorando la toma de consciencia en uno mismo y la lectura y comprensión en el manejo de la relación corporal.

Las habilidades profesionales del Psicomotricista Relacional se integran de un modo personalizado en cada caso.
La formación impartida en los dos primeros cursos aporta una base suficiente para poder ejercer como Psicomotricista. Sin embargo, para atender situaciones complejas, una profundización en los aspectos personales y emocionales, y una mayor toma de consciencia de cómo todo ello influye en el trabajo práctico vivencial en la sala de Psicomotricidad favorece la mejora y calidad del trabajo.

Cuanto más elaborado y consciente cada Psicomotricista tenga su historia personal y la relación que ésta tiene con los diferentes aspectos que se implican durante el juego en la relación, el diálogo tónico, con los/las niños/as en las sesiones, más aumentan las posibilidades de un uso consciente y ponderado de la personalidad del psicomotricista en la relación profesional con las criaturas, sin interferencias personales.

El trabajo formativo lo llevamos a cabo por medio de Vivenciales intensivos de 3 días seguidos. 5 vivenciales por curso.
Combinamos con Supervisiones individuales con el fin de facilitar el traslado de lo trabajado en la formación al mundo laboral y personal de cada uno.

Para más información : psicomotricidadrelacion@gmail.com

# Psikomotrizitate Erlazional formazioaren oinarriak

# Zer da Psikomotrizitate Erlazionala?

Psikomotrizitate Erlazionala André Lapierreren (1923-2008) ikerketa-lanetatik sortu zen, Bernard Aucouturierrekin elkarlanean, bai teorian eta bai praktikan aurrera eramandako lankidetza etaparen ondoren. Esandako aldi horretan, estrategia multzo handia garatu zuten psikomotrizitatean oinarritutako hezkuntzaren eta berreziketaren arloetan eta hainbat titulutan bildu zituzten estrategia horiek. Esate baterako, "Educación vivenciada. Los contrastes. Asociaciones de contrastes, estructuras y ritmos. Los matices" trilogian. "Simbología del movimiento" izenburuko lanean, berriz, 1970eko hamarraldiaren azkenetan, helduekiko prestakuntza-ikastaroetan eta haurrekin gauzatutako prebentzioko eta terapiako esku-hartzeetan agertzen ziren jolas espontaneoaren adierazpen- eta proiekzio-alderdiei jarri zieten arreta. Ordutik aurrera, André bere alaba Anne Lapierrerekin hasi zen lanean eta biek argitaratu zuten "El adulto frente al niño de 0 a 3 años." Irakasleei zuzendutako ikastaro ugari eman zituzten Espainiako hainbat lekutan, horien artean Bartzelonako Udaleko Hezkuntza Institutuko "Escola d'Expressió" deituan. 1980ko hamarraldiaren amaieran, Nuria Franch katalanaren esku utzi zuten hezkuntza arloan psikomotrizitatearen garapenari buruz zuten filosofiaren hedapena.

Korronte horretan hezi garenok geure ibilbideari eusten diogu. Betiere, esku artean dugun ondarearekiko esker onez eta ahalik eta maitasun handienarekin zainduz.
Psikomotrizitate Erlazionalak hainbat tresna eskaintzen ditu haurren jolasaren dimentsio sinbolikoa eta afektiboa interpretatzeko eta ulertzeko eta, horrela, haurren nortasuna egituratzen eta adierazten laguntzeaz gainera, dagokion kasuan, hura berreskuratzen eta integratzen lagundu dezake.
Psikomotrizitate Erlazionalak irizten dio haurraren bizitzako lehen urteetan berorientzat esanguratsuak eta maitatuak diren helduekin dituzten harremanak eta loturak direla haurraren identitatea, alderdi psiko-afektiboak, emozionalak eta kognitiboak konfiguratzen dituztenak, komunikazio-elkarreragin horretan bizipenen memoria eraikitzen duen gorputz fisikoaren barruan. Helduekiko harreman eta lotura seguru horiek dira, hain zuzen, haurrari eusten diotenak eta hark mundura zabaltzeko, ezagutzeko eta interesez, jakin-minez eta askatasunez ikertzeko beharrezkoa duen konfiantza eraikitzea posible egin eta babesten dutenak. Bizitzako lehen urteetan horrelako prozesu bat izateak nortasun orekatu bat eraikitzea ekarriko du, bai eta gizarteratze lasai eta gogobetegarri bat ere. Kontrako kasuan, afektibitate- eta komunikazio-gabeziek segurtasun eza eta blokeoak sorraraziko dituzte.





Nortasuna eraikitzeko prozesuak hitzezko hizkuntzaren aurretikoa den lengoaia TONIKO-GORPUTZEKOaren bidez gauzatzen dira, heldua-haurtxoa harremanean, non komunikazio guztia gorputzean datzan. Gorputza da sentiberatasuna bizi den toki bakarra: afektibitatea, emozioa, norberarekiko eta bestearekiko harremana; plazeraren, desiraren, frustrazio eta larritasunen, ezagutzaren eta ikaskuntzaren tokia. Hitz gutxitan esanda, haurrak besteekiko harremanean —bereziki, guraso-figurekin eta haien ordezko helduekin— bizi dituen emozio guztiak barneratzeko eta gogoratzeko tokia.

Psikomotrizitate Erlazionala lanerako tresna bat da eta haurren berezko kode naturaletik abiatuta —jarduera eta jolas espontaneoa— komunikazioa ezartzeko aukera ematen digu. Lengoaia horretan adierazten dituzte haurrek bizitzen ari diren nahiak, premiak eta gatazkak. Hau da, gorputzean gertatzen den guztia.

Psikomotrizista Erlazionalak haur bakoitzaren premia zehatzak eta bilakaera-une partikularra kontuan hartuta ekin beharko dio komunikazio horri. Betiere, errespetutik, inplikaziotik eta komunikazio- eta gorputz-prestasunetik abiatuta. Jolasa interpretatzeko erabiliko duen tresna sinbolizazioa irakurtzea izango da: adierazpen pertsonala, irudi-proiekzioa eta mimesia, hautemandako kanpo-errealitatearen eta haurraren barne-munduaren arteko egokitzapena (asimilazioa) modulatzeko.

Haurraren gorputz-komunikazioak, harreman-bitartekariek (tonua, jarrera, ahotsa, begirada, keinua, irribarrea, mugimendua, erritmoa, hizkuntza...) eta norberari eta besteari entzuteak berebiziko garrantzia dute hezkuntza-ekintzan eta heldua-haurra komunikazioan.

# Zer ekarpen egiten die Psikomotrizitate Erlazionalak hezkuntza eremuari eta, oro har, haurrei?

Hezkuntzari dagokionez, latinezko etimologiara jotzen badugu, ikusiko dugu “hezkuntza” aditzak “argitara ateratzea” esan nahi duela. Hau da, lehenik eta behin, amaren eta semearen arteko harremana garatzea eta familian, gizarte-harremanetan, familia zabalean, lagunartean, bizilagunekin eta, gaur egun, egundoko garrantziarekin, eskolan —gero eta goizago eta ugariago eskolatzen dira haurrak—, norbera zer den, zer pentsatzen eta sentitzen duen eraikitzea eta adieraztea.

Ikuspegi horretatik eta testuinguru horretan, Psikomotrizitate Erlazionala oso tresna baliotsua eta erabilgarria da haurren heltze-garapenean laguntzeko, giro seguruak sortzearen bitartez, non haurrek elkar ezagutu eta nahi dutena adieraz dezaketen, beren barne-mundu guztia “argitara ateratzeko”. Emozioz beteriko mundu horrek, izan ere, haurraren gizarte-inguruneak onartua, aitortua, entzuna, bereganatua eta errespetatua izatea behar baitu.

Psikomotrizitate Erlazionalaren praktikak mundu emozionalari ekiteko aukera ematen digu, alegia, haur bakoitzaren barne-errealitatean aritzeko aukera. Modu horretan, helduaren eta haurraren arteko komunikazio pertsonala ezar daitekeenez, taldeko elkarreraginak dinamiza daitezke, gatazkak bideratu eta drainatu, edota premia psiko-afektiboak eta kognitiboak elikatu.



# Prebentzioaren garrantzia

Osasuna, 1946an Osasunaren Mundu Erakundeak emandako definizioaren arabera, ez da soilik gaixorik ez egotea. Aldiz, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala izatea eskatzen du. Gaur egun, psikologia-, hezkuntza- eta medikuntza-zientziak bat datoz diotenean pertsonaren bizitzako lehen sei urteek funtsezko garrantzia dutela gizaki horren bizi osorako, osasunari edo patologiei dagokienez: lehen haurtzaroan eraikitzen dira giza nortasunaren oinarriak.

Bizitzako edozein etapatan prebentzio-ekintza funtsezkoa baldin bada, dudarik gabe, berebiziko garrantzia du 0-6 urte arteko etapan. Garai horretan sortzen eta eratzen da nortasunaren eta norberarekiko eta besteekiko komunikazioaren oinarria. Haurraren kasuan, mundua hark dituen lotura afektiboetara mugatzen da, horrek ematen dio bere garapenerako segurtasuna eta arnasa, familia-harremanaren eta harekin elkarlanean ari direnen testuinguruan: familia zabala, haur-eskola....

Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu jakinaren gainean egotea zeinen delikatua eta garrantzizkoa den prebentzioa lehen haurtzaroan, eta zenbaterainoko eragina izango duen horrek pertsonaren bilakaera psikologikoan. Esan nahi baita axola duela, eta ez gutxi, nork eta nola esku hartzen duen giza garapena eraikitzeko prozesu horretan.



Esaerak dioen bezala, “hobe aurrez neurriak hartzea, gero sendatzea baino”. Hau da, ezinbestekoa iruditzen zaigu haurtzaroko edozein arlotan (hezkuntza, osasuna, gizarte-laguntza) aritzen diren profesionalek giza garapenaren bene-benetako premiak sakon ezagutzea eta, ondorioz, haurrarekiko komunikazio egokiak eskatzen duen harremana eraikitzeko gauza izatea. Horretarako, laguntza egokia bilatu beharko dute haurraren segurtasunaren oinarri diren zutabeetan, lehen lotura afektiboa sendotu eta indartu beharko dute, eta guraso-figuren funtzio ordezkaezina aitortu eta sostengatu. Hala, posible izango da hezkuntza-, osasun- edo laguntza-harreman horiek eraikitzea haurra txertaturik dagoen familia-modua onartzen eta integratzen duen sistema batetik abiatuta. Hementxe aurkitzen dugu, puntu honetan, hain zuzen, Psikomotrizitate Erlazionalaren baliagarritasun handia, haurtzaroa jorratzen duten profesionalen prestakuntzari gure ekarpena eskaintzea baita gure asmoa.

# Formazio moduluak – Eduki teorikoak, praktikoak eta bibentzialak

15 formazio modulutan honako eduki hauek praktikatzen eta bizitzen dira, ikaskuntza prozesu osoan zehar:

**Psikomotrizitatearen kontzeptua eta historia**

- Zer da Psikomotrizitate Erlazionala
- Psikomotrizitatearen historia eta gaurkotasuna
- Psikomotrizitate Erlazionalaren eskuhartze eremuak

**Psikomotrizitate Erlazionalaren oinarri teorikoak**

- Identitatearen garapena
- Gorputz dialogoa: tonua eta ehuntzen duen sarea
- Agresibitatea: gizakiaren garapenean jatorria eta funtzioa
- Harreman posizioak

**Jolasa**

- Sinbologia
- Mugimendua
- Jolasaren esanahia eta bere funtzioa garapen ebolutiboan
- Adierazgarria-Esanahia
- Hizkuntza analogikoa eta digitala
- Jolas edukien irakurketa

**Psikomotrizitate Erlazional saioaren egitura**

- Espazioa
- Sala
- Materiala
- Behaketa
- Sinbologia- Objektuak- Espazioa- Harremana-Izendatzea

**Psikomotrizista Erlazionalaren rola**

- Gorputz prestasuna
- Itxarotea
- Entzutea
- Psikomotrizistaren gorputza
- Harreman bitartekariak: ahotsa-gorputza-begirada, postura-tonua

**Garapen sozio-afektiboa 0-6**

- Atxikimendua. Harreman dualetik lehenengo harreman sozialetara.
- Egokitzapen garaia eskolan, “atxikimendu garaia”
- Ni-aren garapena
- Agresibitate eta afirmazio fasea
- Psikomotrizitate Erlazionaleko saioan fase bakoitzaren adierazleak

**Psikomotrizitatearen lan prebentiboa**

- Zer da prebentzioa
- Behaketa adierazleak
- Harreman jarrerak
- Adierazle psikosomatiko nagusiak
- Familia integratzeko estrategiak

**Haur-masajea**

- Gorputzaren bizipena
- Azala, ukimena eta kontaktua
- Haur-masajea

**Garapen psikomotorra**

- Aportaciones de diferentes teorías
- La relación como base del desarrollo cognitivo
- Dificultades de aprendizaje

**Desarrollo evolutivo de las emociones**

- Garapen motorraren oinarriak
- Posturaren anatomia emozionala eta dinamika
- Garapen motorearen faseak
- Mugimendua

**Kognizioaren garapena**

- Teoria diferenteen aportazioak
- Harremana garapen kognitiboaren oinarri gisa
- Ikasketa zailtasunak

**Neuropsikologia**

- Nerbio-sistemaren garapena
- Motrizitatearen filogenesia eta ontogenesia

**Emozioen garapen ebolutiboa**

- Garapen emozionala: beldurra, haserrea, poza, tristura, lotsa, kulpa, frustrazioa
- Identitate emozionalaren ezagupena
- Zer da hezkuntza emozionala
- Enpatiaren garapena
- Nola adierazten dira emozio guztiak Psikomotrizitate Erlazionaleko saioan
- Mugak eta gatazken konponketa

**Psikologia sistemikoaren aportazioak**

- Gizaki-sistemen ekologia
- Familiarekin nola lan egin
- Diziplinarteko lana

**Psikoanalisiaren oinarriak**

- Libidoaren teoria: haurtzaroaren fase sexualen funtzioa
- Frustrazioaren teoria eta hezkuntzan dituen ondorioak
- Instantzia psikikoak: betebeharra, errealitatea eta plazeraren printzipioak
- Defentsa mekanismoak
- Autorregulazioaren teoria eta bere funtzioa osasunaren garapenean

**Psikodinamika**

- Haur proiekzioak
- Transferentzia-kontratransferentzia

# Formazioaren ebaluazioa

Ebaluazioa etengabea da eta ikasle bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua egiten da. Proposatutako gaitasunetara iristeko, honako lan edo gogoeta pertsonal hauek eskatuko dira:

## EBALUAZIO TEORIKOA, PRAKTIKOA ETA BIBENTZIALA

- Bideoz grabatutako saioak aztertzeko banakako 3 lan egitea.
- Ikasleak bere praktika pertsonala egiten duen haur taldearekin “in situ” superbisio bat egitea.
- Bideoak ikustea eta edukien lanketa taldean lantzea.
- Autobalorazioaren errubrika: ikasturtearen amaieran.
- Ikasturte bakoitza amaitzean: talde prestatzaile iraunkorrak ebaluazio pertsonaleko elkarrizketa bat egingo du ikasle bakoitzarekin (bi elkarrizketa).
- Prestakuntzaren amaieran: ikasleek aukeratutako gai baten lan monografikoa egin eta jendaurrean aurkeztea.
- Asistentzia eta parte hartzea baloratuko da.

## AUTOEBALUZIOA

- Ikaskuntzaren egunerokoa.
- Saioen egunerokoa.

Formakuntza amaieran ikasleak prestakuntzaren lan monografiko bat egingo du taldean, ondoren jendaurrean aurkezteko.
Prestatzaile-taldeak banakako elkarrizketa bat egingo du urte bakoitzaren amaieran eta prestakuntzaren bigarren urtearen erdialdean, prestakuntza-prozesua ezagutzeko eta baloratzeko eta egin beharreko ibilbidea planifikatzeko.
Prestakuntzaren amaieran, ikasleak prestakuntza amaitu ondoren egin duen talde-lan monografikoa jendaurrean aurkezteko data adostuko da.

# Informazio generala ikaskuntzari buruz

**Ziurtagiria**

Ikastaroa gaindituta, prestakuntzako 850 orduko ziurtagiria lortuko da, 250 orduko eguneratze-ikastaro modura homologatua, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza sailburuordearen ebazpen bidez. Informazio gehiago nahi izanez gero:

**http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/personal-docente-homologacion-act-formacion/r43-2458/es/**

**Egutegia eta ordutegia**

Bi urteko prestakuntza: 2024ko irailetik 2026eko ekainera.
Hilean behin topaketa bat: ostiralean 18:00etatik 21:00etara. Larunbat horretan 10:00etatik 19:00etara (etenaldia bazkaltzeko).

**Formazioaren kostua**

Prestakuntzak 3.900 euroko kostua du guztira.

- 900 euroko matrikula eta 150 euro hamar hileko ikasturte bakoitzean.

# Sakonketa / Harremanaren gorputz-analisia

Bi urteko prestakuntza amaitu ondoren, Magalean programak aukera ematen du psikomotrizista gisa harreman profesionalean jokoan jartzen diren bizipenei jarraipena emateko eta horietan sakontzeko.
Batez ere interesgarria da beren lana talde konplexuetan egiten duten psikomotrizistentzat, arazo anitzak dituzten banakako kasuak artatzen dituztenentzat, Arreta Goiztiarrean, eta abar.
Sakontze-lanaren prozesuarekin, psikomotrizistaren konpetentzia eta gaitasuna areagotu egiten dira, norberaren kontzientzia-hartzea eta gorputz-harremanaren irakurketa eta ulermena hobetuz.
Psikomotrizista erlazionalaren trebetasun profesionalak modu pertsonalizatuan integratzen dira kasu bakoitzean.

Lehenengo bi ikasturteetan emandako prestakuntzak nahikoa oinarri ematen du psikomotrizista gisa jardun ahal izateko. Hala ere, egoera konplexuei erantzuteko, alderdi pertsonaletan eta emozionaletan sakontzeak eta horrek guztiak Psikomotrizitate gelako bizipen-lan praktikoan nola eragiten duen jakiteak lanaren hobekuntza eta kalitatea errazten ditu.
Psikomotrizista bakoitzak bere historia pertsonala eta honek haurrarekiko jolas-harremanetan -elkarrizketa tonikoan- duen eragina zenbat eta landuagoa eta kontzienteagoa izan, orduan eta aukera gehiago daude psikomotrizistaren nortasuna modu kontzientean eta haztatuan erabiltzeko haurrekiko harreman profesionalean, interferentzia pertsonalik gabe.
Prestakuntza-lana bizipen intentsiboen bidez egiten dugu. Ikasturte bakoitzean 5 bizipen intentsibo egiten ditugu, bakoitza 3 egunetakoa.
Hau guztia, banakako ikuskapenekin konbinatzen dugu, prestakuntzan landutakoa norberak lan-mundura eta eremu pertsonalera eramatea errazten duena.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan psicomotricidadrelacion@gmail.com emailera idatziz